

**OÑATIKO EAJ-PNVK GOBERNU TALDEAREN SALAKETAK GAITZETSI DITU: GUK EZ DUGU INOLAKO ALARMARIK SORTU, GUK SOILIK EH BILDUK PROPOSATUTAKO ORDENANTZAREN ONDORIOAK AZALERATU DITUGU**

Eztabaida antzuak ekidite aldera, EAJ-PNVren udal taldeak ez die erantzuna eman ohi izan EH Bilduko udal gobernutik edo haren ingurutik argitaratzen diren kritikei. Dena den, tabernen ordenantzaren harira azken oharrean eginiko akusazio larriei erantzuna eman beharrean gaudela deritzogu.

EH Bilduk EAJ-PNVren udal taldearek egotzen dio “baieztapen faltsu eta zehaztugabetasunetan oinarrituta herritarrengan nahasmena eta alarma” sortu izana. EAJ-PNVren udal taldeak, ordea, bere prentsa oharraren bitartez, gobernu taldeak joan den ekainaren 7ko hirigintza batzordean aurkeztutako ordenantza berria onartzeak (EH Bilduren gehiengo osoarekin) suposatuko luken atzerapena azaleratu eta jakinarazi die herritarrei. Jakinaraztea ez da alarma sortzea, ordenantza berriak izango dituen eraginaren inguruan herritarrak eta bereziki Kale Zaharrean eta inguruan bizi diren bizilagunak informatu eta ohartaraztea baizik, modu horretara, euren burua defendatu ahal dezaten.

EAJ-PNVk berriro azpimarratu nahi du udal gobernuak ez duela aurretik prozesu parte hartzailek abiarazi; zarategatik kaltetuak diren pertsonak ez dute inolako informaziorik jaso eta, horrenbestez, ez dute EH Bilduren gobernuak proposatutako ordenantzaren edukia ezagutzen. EAJ-PNVri ez zaio zilegi iruditzen udal gobernuak, parte hartzearen eta elkarlanaren aldeko apustua aldarrikatzen duen gobernuak alegia, kasu honetan zaraten arazoa pairatzen duten pertsonak albo batera utzi izana. Eta hori gutxi balitz, ordenantza proposamena lantzeko garaian kontuan izan ez dituen orain, “ostalaritza jarduera erregulatuko duen ordenantzari proposamenak egiteko deia” egiten die, hori bai, soilik 15 eguneko epea emanez horiek udal webgunean aurkezteko. Zein ordenantzari egingo dizkiote ekarpenak, ordea, aurrez aldaketa proposamena aurkeztu ez bazaie eta ondorioz, testua ezagutzen ez badute?

Halaber, EH bilduren udal gobernuak alderdi jeltzalearen aurkako eraso zuzenetan eta akusazio faltsuetan oinarritu da EAJ-PNVk argitaratutako argudiatzeari erantzuteko eta ez ditu, oraindik, euren ordenantza proposamenaren nondik-norakoak azaldu. Estrategia horren larritasuna azaltzeaz gain, aurreko oharrean egin bezala, gogorarazi nahi du, ordenantza proposamen horrek 1993ko kontrol sistemara atzera egitea suposatzen duela, ondorioz bizilagunak asteburuz asteburu Ertzaintzan salaketak jartzera behartuz, nahiz eta, gaur egun, badiren egoera eta babes ez hori ekiditeko sistema automatikoak. Pertsona kaltetuek bi legegaldi daramatzate jada EH Bilduren udal gobernuaren erantzunaren zain, baina, horiei entzun baino, badirudi gobernu taldeak nahiago duela beste behin errealitatea ukatu eta oposizioa gogor kritikatu, inolako eraginik edota benetako arazoarekin zer ikusia ez duten ñabardurei erreparatzeko, gainera.

Hobe luke udal gobernuak bere indarrak pertsona kaltetuak entzun eta egungo arazoari erantzuna emango dion ordenantza proposamena lantzerantz bideratzea, bere kudeaketa txarra ezkutatzeko EAJ-PNV eraso, kaltetu eta errudunetsi ordez.

Gaueko zaratak pairatzen dituzten pertsona ugari bizi da Oñatin, asteburuz asteburu euren deskantsurako eskubidea urratuta ikusten duten oñatiar ugari, alegia, eta egoera horri irtenbidea ematea Udalarik dagokio, kasu honetan, EH Bilduren gidaritzapean dagoen Udalarik. Edonola ere, gobernuak beti izango du EAJ-PNVren laguntza arazoari erantzun egoki bezain eraginkorra emateko.



**EAJ-PNV DE OÑATI RECHAZA LAS ACUSACIONES DEL EQUIPO DE GOBIERNO: NOSOTROS NO HEMOS CREADO NINGUNA ALARMA, SOLO HEMOS ALERTADO DE LAS CONSECUENCIAS DE LA NUEVA ORDENANZA QUE PROPONE EH BILDU**

El grupo municipal de EAJ-PNV, para evitar polémicas estériles, no suele responder habitualmente a las críticas que se publican desde el equipo de gobierno de EH Bildu o su entorno. No obstante, las graves acusaciones vertidas en la última nota publicada en torno a la ordenanza de bares, exigen una réplica.

Desde EH Bildu se acusa al grupo municipal de EAJ-PNV de "intentar crear alarma y confusión en la ciudadanía mediante afirmaciones falsas e inconcreciones". Lo que el grupo municipal de EAJ-PNV ha hecho a través de su nota de prensa es advertir y alertar a la ciudadanía del retroceso que supondría la aprobación (con la mayoría absoluta de EHBildu) de la nueva ordenanza en los términos redactados por el gobierno y que se presentaron en la Comisión de Urbanismo el pasado 7 de junio. Alertar no es alarmar sino prevenir a la ciudadanía afectada de las consecuencias que acarrearía, especialmente, a las y los residentes de la zona de Kale-zaharra y su entorno para que puedan defenderse.

EAJ-PNV vuelve a incidir en que el gobierno municipal no ha puesto en marcha un proceso participativo previo, las personas especialmente afectadas no han sido informadas, no conocen el texto de la ordenanza que ha propuesto el Gobierno de EHBildu. Nos parece muy grave que el gobierno de EH Bildu, que presume de apostar por la participación y la colaboración ciudadana, haya dejado de lado a las personas que sufren el problema de los ruidos nocturnos y ahora les invite "... a realizar aportaciones a la futura ordenanza que regulará las actividades de hostelería" dándoles sólo 15 días hábiles para presentarlas a través de la página web municipal. ¿A qué "futura ordenanza" van a hacer aportaciones si no se les ha presentado con antelación el texto de la propuesta de modificación?

Asimismo, nos parece muy grave que la acusación de EH Bildu ante la argumentación expuesta por EAJ-PNV en su nota de prensa se base única y exclusivamente en atacar al partido y acusarlo de falsedades, en vez de dar las explicaciones pertinentes al porqué de su propuesta de ordenanza que, recordamos, elimina el control automático y directo de ruidos desde los servicios municipales lo que supone retroceder al sistema de control 1993 lo que obligará a las y los vecinos a seguir denunciando ante la Ertzaintza cuando actualmente existen sistemas automáticos que evitan esta indefensión. Las personas afectadas llevan ya dos legislaturas esperando una respuesta por parte del gobierno de EH Bildu y al parecer, en vez de atenderlas a ellas, el gobierno prefiere centrarse en atacar duramente a la oposición por matizaciones que además, no influyen ni tiene nada que ver con el problema real, ignorado, una vez más, por EH Bildu.

Desde EAJ-PNV creemos que el equipo de gobierno debería de dejar de gastar sus energías en culpabilizar, atacar y dañar a EAJ-PNV con el único propósito de ocultar su mala gestión y debería centrar sus esfuerzos en escuchar a las personas afectadas y realizar una modificación de la ordenanza que dé respuesta al actual problema.

En Oñati hay personas que sufren los ruidos nocturnos y se ven privadas del derecho al descanso y es necesario atender sus reivindicaciones y dar una salida a esa situación es responsabilidad del Ayuntamiento, en este caso, dirigido por EH Bildu, pero siempre contará con la colaboración de EAJ-PNV para resolver este problema.

---